

Euskararen erabilera ez da ari igotzen ezagutzaren neurri berean kalean

Bizkaian, hamarretik sei euskaldun ez dira euskaraz mintzo kalean; erabilerak behera egin du herrialdean

AINHOA SARASOLA
Donostia

Kalean euskararen erabilera gora doa, Euskal Herri osoko datuak kontuan izanda. Baina motelari da igotzen erabilera; 17 urtetan %3,4 baino ez da handitu euskararen presentzia kaleetan —duela sei urtetik hona, %0,7 besterik ez—. Kalean entzuten ditugun ehun elkarriketatik, euskaraz 14 besterik ez dira egun. Herrialdeen artean alde handiak daude, halaber. Gipuzkoa da euskara gehien erabiltzen den eta erabilera gorakada handiena izan duen herrialdea. Araban, Bizkaian eta Nafarroan igoera trabatuago dago. Eta, urteotako joerari jarraiki, Ipar Euskal Herriak eman du berriz ere daturik kezkarria: euskararen erabilera behera doa, etenik gabe. Oro har, euskararen ezagutza eta erabilera ez dira maila berean igotzen ari, nabarmen. Bizkaian, esaterako, hamar euskaldunetik sei kalean ez dute euskara erabiltzen.


Euskararen Erabileraren V. Kale Neurketak utzitako datuak eta ondorioak aurkeztu zituen atzo Soziolingüistika Klusterrak, Donostia. 2006an, milaka elkarriketa eta 185.000 hitz inguru behatuta egin dute ikerketa. Olatz Altuna, Xabier Isasi, Iñaki Martínez de Luna eta Rosa Ramos azterlanaren batzorde zientifikoko kideek azaldu zituzten neurketaren nondik norakoak.

Azken 17 urteetako bilakaerari erreparatuta, joera positiboa dela nabarmendu zuen Altunak, Euskal Herrian oro har euskara gero eta gehiago erabiltzen baita. Hala ere, inguru gehienetan oraindik ere minoritarioa dela argi dagoela, eta hazkunde, ezagutza kopuruei erreparatuta, «nahi eta espero baino motelagoa» izan dela esan zuen.


Adin taldeei dagokien, ordea, «hizkuntza normalizazio prozesu batean egon litekeen hurrenkerririk hoberena» lortu dela azpimarratu zuen Altunak; zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da erabilera. Adinekoenak izan ezik, talde guztiek izan dute bilakaera positiboa, gainera. Haurren artean handitu da gehien erabilera, baina gazteen taldean, ordea, ez da hobe-kuntza nabarmenik izan 2001etik.

Udalerrietako euskara ezagutzaren arabera zonaka guztietan euskararen erabilera gora egin duela esan zuen, batez ere ingurune euskaldunenetan. Udallerrien

■ Euskararen kale erabilera



Herrialdeka (%)



Adinaren arabera (%)

	1989	1993	1997	2001	2006
Haurrak	15,1	16,7	17,7	19,0	20,8
Gazteak	8,5	10,4	11,9	13,6	13,8
Helduak	9,2	10,0	11,0	11,3	12,3
Adinekoak	13,7	13,0	12,8	12,0	10,6


Udallerrien biztanle kopuruaren arabera (%)

	1993	1997	2001	2006	Aldea 1993-06
<5.000	24,3	25,1	21,6	22,9	-1,4
5.000-10.000	17,5	21,0	21,4	20,9	+3,4
10.000-25.000	22,1	24,3	25,9	26,9	+4,8
25.000-50.000	6,8	6,3	10,9	8,7	+1,9
50.000-100.000	3,5	3,5	5,1	4,9	+1,4
>100.000	4,0	5,1	5,4	6,3	+2,3

Haurren presentziaren arabera (%)

	Haurrak BAI	Haurrak EZ
Gasteiz	5,9	2,6
Bilbo	7,3	3,8
Donostia	31,6	11,8
Iruñea	4,4	5,3

Hego Euskal Herriko hiriburuak (%)



Udalerrietako jakite mailaren arabera (%)

	1993	1997	2001	2006	Aldea 2001-06
%0-25 tartean	3,4	3,3	4,0	4,4	+0,4
%25-50 tartean	13,4	17,5	20,5	20,0	-0,5
%50-75 tartean	36,2	41,8	40,1	41,5	+1,4
%75etik gorako tartean	65,7	66,4	63,4	66,3	+2,9

Sexuaren arabera (%)

	Haurrak Giz. Ema	Gazteak Giz. Ema	Helduak Giz. Ema	Adinekoak Giz. Ema
Gasteiz	6,1	5,4	7,1	5,2
Bilbo	8,7	6,4	4,2	2,7
Donostia	36,1	31,9	21,8	13,3
Iruñea	4,5	1,8	2,7	2,0

(JURRIA: SOZIOLINGÜISTIKA KLUSTERRA)

biztanle kopuruaren arabera, berriz, 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko herrietan egiten da euskara gehien, eta ondoren, 5.000 biztanle-tik beherako herri txikietan. Hegoaldeko lau hilaletan izaniko hazkunde Donostiaren bilakaera positiboari zor zaio; Bilbon, berriz, beherakada izan da. Gasteizen ere erabilera handiagoa da 2001ean baino.

Sexuaren arabera emaitzak

adin eta hiriburuaren arabera sailkatu dituzte. Emakumeek adin tarte guztietan gizonezkoek baino erabilera maila hobeak azaldu dituzte. Alde hori are handiagoa da haur eta gazteen artean heldu eta adinekoen artean baino. Salbuespen bakarra hiriburu euskaldunen artean izan da, Donostian; adinekoetan, gizonek emakumezkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute, beste guztietan ez bezala.

Erabileran nabarmen eragiten du haurren presentziak: haurrak tarteko diren euskara gehiago erabiltzen da. Dena den, eragina ahulagoa da duela bost urte baino.

Altunaren ustez, «argazki estatikoari erreparatuta euskararen egoera eskasa da; baina dinamiko, 17 urteotako bilakaerari begiratu, joera itxaropentsua ikusten da, nahiz eta egoera duin batera iristeko asko falta zaigun».

Pixka bat gutxi da



analisia

IÑAKI PETXARROMAN

Datuak hotzak dira. Hotzeak batzuetan. Euskararen kale erabileraren datu berriek, atzo Soziolingüistika Klusterrak aurkeztutakoek, Euskal Herrian euskarak duen errealitatearen gordina erakutsi dute, hotz-hotzean.

Gero eta hitzuen gehiago, gero eta euskaldun gehiago dituen hizkuntzen erabilera ez da ezagutzaren neurri berean handitzen ari. Gipuzkoak itxuratzen ditu pinitin bat datu kezkarriak. Izan ere, Ipar Euskal Herrian euskararen odolustek ez du etenik; Bizkaian beherakada edo —oso baikor izanda— egonkortze kezkarria ageri da; eta Nafarroan ez aurrera ez atzera jarraitzen du kaleko erabilerak.

Azpimarragarria da gazteen artean euskararen erabilerak duen motelaldia. Hezkuntzako eredu euskaldunak nagusitzen ari badira ere, %13,6tik %13,8ra igaro da erabilera bost urteetan. Bizkaiko kasua ezin adierazgarriagoa da: %9,5etik %8,1era murriztu da euskararen kaleko erabilera gazteen artean —%16,5etik %15,4ra, umeen artean—. Aurtengo ikasturtean, euskara hutsezko D ereduaren ikasten ari dira Bizkaiko ikasleak %51,4. Ondorioa argia da: euskaraz jakin arren, ez dute kalean erabiltzen.

Bizkaia argi erakusten du euskarak duen egoera diglosikoa. Euskaraz da gai, berez, ahulegia da, hitzunez erabil dezaten. Izan ere, gazte horiek denek gaztelaniaz egiten badute, arrazoi nabarmena da: euskara ez zaie eroso, ez zaie natural, eguneroko harremanetarako. Azken finean, euskara arrotz zaie, eskolako zerbait izatera mugatua da.

Bizkaia kasua esanguratsua da, agerian uzten duelako Euskal Herrian euskararen alorrean dauden hiru hizkuntza politikak ez dutela bermatzen euskararen normalizazioa. Nafarroan Gobernuak urteotan egindako politikak lortu du euskarak ez aurrera ez atzera jarraitzea. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan denbora kontua da euskararen herio iragarria. Eta ustez euskararen aldeko politikak egiten ari den herrialdeetan ere egungo politikaren mugak argi erakusten ditu kaleko neurrak. Zeren eta, horren ahal da goen hizkuntza biziberritzeko, pixka bat gutxi da.